

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

18/2020 Mozioa, maiatzaren 20koa, COVID-19ak kulturaren eta euskal kulturagintzan eragin dituen eta eragingo dituen kalteei aurre egiteko premiazko neurriei buruzkoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko maiatzaren 20an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

18/2020 Mozioa, maiatzaren 20koa, COVID-19ak kulturaren eta euskal kulturagintzan eragin dituen eta eragingo dituen kalteei aurre egiteko premiazko neurriei buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek aitortu egiten dute kultura dela behar-beharrezko ondasun bat eta herritarren eskubide bat, oinarritzkoa dena bizikidetzeta eta gizarte-kohesiorako, eta ekarpena egiten diola lurraldearen aberastasun sozial eta ekonomikoari, babestu eta errekueratu behar dugun ehun produktibo horren zati baita. Halaber, Arabako Batzar Nagusiek aitortu egiten dute artistek COVID-19ren osasun-larrialdiak eragindako konfinamenduak iraun bitartean artistek herritarren bizi kalitatea hobetzeko izan duten zeregina.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala Eusko Jaurlaritzarekin koordinatzen kulturaren sektorea biziberritzeko talka- eta babes-neurriak, Kulturaren Euskal behatokiak edo goragoko erakunde batzuek COVID-19ren eraginari buruz egindako txostenen ildoei jarraituz.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala kuadrillekin, udalekin eta Arabako kulturaren sektoreko ordezkariekin harremanetan eta lankidetzan aritzen, jaso ditzala haien ekarpenak eta neurri eraginkorrak arteztu ditzala lurraldeko ekintza kulturala errealitate berrira egokitzen laguntzeko.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote lan egin dezala programazio kulturala birformulatzen, lehentasuna emanez tokiko eragile eta profesionaleri, kontuan izanik euskaraz egindako kultura eta genero-ikuspegia, eta egokitu dezala unean-unean behar diren urrutze sozialeko neurrietara. Era berean, eskatzen dio mantendu dezala ondare arkitektonikoko eta arkeologikoko inbertsioari.

5. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ez ditzala bertan behera utzi geroratutako emanaldiak eta indarrean zeuden kontratuengatik eragindako gastuen zati bat bere gain har dezala, bai eta apustu egin dezala emanaldi horiek etorkizunean egitearen alde. Kontzeju, udal eta kuadrillei gomendatzen zaie irizpide berberak erabiltzeko.

6. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote berregin ditzala kulturaren sektorearentzako diru-laguntzen eta laguntzen ildoak, baita ere jarduerak osasun-prebentzioko neurrietara egokitzea ahalbidetzen duten bitarteko teknikoak eskuratzeko inbertsioa laguntzeko babes-ildoak, eta kultura hedatzeko eta ikusarazteko bide berriak zabaldu ditzala, eta azter dezala izapidetza administratiboa errazten duten bitartekoak ezartzea.

7. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aldeztu dezala jarduera pribatuak kulturaren parte hartzea, kultur mezenasgorako pizgarriak hobetuz.

8. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, bere eskumenen esparruan eta era koordinatuan, finantzazio pribatuko formula mistoak ezarri daitezela ekitaldi kulturalak sortu ekoitzei eta gauzatzeko.

9. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote KulturAraba Bulegoa izan dadila kultur eragileei aholkularitza emateko eta haiekin etengabeko harremana izateko mekanismoa, instituzioek COVID-19en eragina eta inpaktua arintzeko beraien esku jartzen ari diren laguntza-neurriei dagokienez.

10. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote abian jar ditzala, Eusko Jaurlaritzarekin eta hala nahi duten udalekin batera, kultur produktuen kontsumoa sustatzeko kultur bonoak, krisi honen ondorioak arintzeko helburuz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 20a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA